

urola erdia

Azpeitiak lanbide liberatuen zerbitzua euskaratzeko katalogoa argitaratu du

PATRONATUAK 70 PROFESIONAL ZENBATU DITU HERRIAN

Lau arlotan banatu dute eskaintza berria: zuzenbidea, osasuna, eraikuntza eta garraiolariak

KRISTINA FERNÁNDEZ

AZPEITIA. Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuak lanbide liberalek eskalduntzeko zerbitzu katalogo berria kaleratu du. Modu honetan, herriko profesional guztiek euskarazko eskaintza emateko aukera izango dutela aurreratu zuten Udaleko Euskara batzordeburua den Ana Mendizabalek eta Euskara Patronatuko zuzendari Patxi Saezek eta era berean, euskara mailan Udala egiten ari den apustua nabarmendu nahi izan zuten.

"Azpeitian 70 profesional liberatu inguru daude, taxilariak, sendagileak... zenbatuz. Astelehenetik aurrera, katalogo berria aurkezten hasiko gara lanbide bakoitzeko eta persona bakoitzari. Bana-bana denek eskainiko dizkiegu zerbitzu berriak", azaldu zuten Ana Mendizabalek zinegotziak.

Euskara Patronatuko zuzendariak adierazi zuzenez, katalogoa lau arlo desberdinetan banatuta dago: zuzenbide sailko lanbideak (abokatua, aholkulariak eta prokuradoreak besteak beste), osasun saila (sendagileak, erizainak...), eraikuntza munduko lanbideentzat (arkitektoak, apaerjadoreak...) eta, azkenik, garraiolariak (taxilariak adibidez).

"Material eta liburu desberdinak eskaintzen ditugu arlo bakoitzari lotuta. Gainera, osasun arloan, sen-



Ana Mendizabal eta Patxi Saez katalogo berriaren aurkezpenan. ARGAZKIA: K.F.

dakuntza orokorraz gain, odontologia edota psikologian oinarritutako liburu zehatzak ere baditugu. Horrez gain, euskaltegiak ikastaro bereziak antolatuko ditu osasun munduko langileentzat", esan zuten Saezek.

Bestalde, Azpeitiko Euskara Patronatuak eskaintzen dituen gai-

nontzeko zerbitzuak ere eskatu daitezkeela gogoratu nahi izan zuten zuzendariak: "Hala nola, kartelak egiteko zerbitzua ere hor dugu. Aholkularitza eta itzulpen-gintza lanak ere egiten ditugu. Eskaintza zabalagoa izango da galdetzea besterik ez dute Euskara Patronatua".

AZKEN PAUSOA Lanbide liberala duten profesionalen zuzendutako eskaintza berri honekin, Azpeitiko Udaleko Euskara departamentuak legealdi honetan egin beharreko lanak eginda izaten dituela pentsatzen dutela adierazi zuten Euskara Patronatuko arduradunek.

Azpeitiko lanbideak euskaratzeko azken urratsa izango dela nabarmendu zuten arduradunek

"Legealdi honetan, hau da 2003tik hasi eta amaitzean dagoen uro honetara arte, lanean aritu gara Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarekin. Arlo sozio-ekonomiko guztian zehar mugitu gara eta falta zitzaigun arlo bakarra lanbide liberala zen. Euskara mailan erabateko hedapena izateko azken pausotzat hartu daitezke eskaintza berria hau", azpimarratu nahi izan zuten Saezek.

"Herria osatzen duten arlo guztietan mugitu gara, enpresetan, ikastetxeetan, elkarteetan... Azpeitiko Udalak apustu handia egin du herrian euskara bultzatzeko", azaldu zuten Ana Mendizabalek.

AZKOITIA > Esta noche llega 'Una visita inesperada' al teatro Baztartxo

Txalo Teatrotik presentará esta noche en Baztartxo el trabajo *Una visita inesperada*. La obra, que comenzará a las 22.00 horas, está dirigida por Gerardo Malla y protagonizada por actores como Jaime Blanch, Charo Soriano y Tomas Sáez. *Una visita inesperada* narra la historia de Michael Starwedder, que tras perderse en la carretera, se encuentra en una casa en la que acaba de cometerse un asesinato. »K.F.

El organista y compositor Wayne Marshall actuará esta tarde en la parroquia

El organista, compositor y director de orquesta inglés Wayne Marshall ofrecerá esta tarde un concierto en directo en la parroquia Santa María la Real de Azkoitia, a partir de las 17.00 horas. Marshall, que también se dedica a la improvisación, el jazz, y la composición, es doctor honoris causa por la Universidad de Bourne-mouth. »K.F.

AZPEITIA > Txotxa eta kontzertuak izango dira gaur iluntzean gaztetxean

Azpeitiko gaztetxea festa giroan murgilduko da gaur gauean. *Antolatzea eta borrokatzea gazteon eskubidea* lempaean, ekitaldiak izango dira bertan. 21.00etan txotxarekin hasiko dira eta, ondoren, ekitaldia egingo dute. 23.30etik aurrera, berriz, Metralleta, Sekuentzia, Paukoiat eta Ezinean taldeen kontzertuez gozatzeko aukera izango da. »K.F.

'Adimen urritasuna duten pertsonen etorkizuna' mintzagai izango da

Adimen urritasuna duten pertsonen etorkizuna gaitzat hartuta, Atzegi-ner Urola Erdiko Komisioak beste hitzaldi bat antolatu du adimen urritasuna duen seneriden bat duten familientzat. Hitzaldia asteartean izango da eta 19.30ean hasiko da Azpeitiko Betherram ikastetxearen aretoan. »K.F.

La escuela Floreaga de Azkoitia celebró el día de Don Bosco



AZKOITIA. La escuela salesiana Floreaga de Azkoitia celebró el jueves el día de Don Bosco junto a todos sus alumnos. Los niños de Primaria (en la imagen algunos posan frente a un cuadro de Don Bosco) y Secun-

daria de la escuela azkoitiarra pudieron disfrutar durante todo el día de diferentes juegos, deporte rural y proyecciones de películas como *Go!*, entre otras actividades. FOTO: FLOREAGA IKASTETXEA

Zestoarrek santa eskean bildutakoarekin organo berria erosiiko dute

ARROA BEHEKO ABESLARI TALDEA GAUR IRTENGO DA KANTATZERA ETA JENDEAREN LAGUNTZA ESKATU DUTE

ZESTOA. Eskualdeko hainbat talde bezala, Zestoako Arroa Behea auzoko abesbatza santa eskean abestera irtengo da, gaur goizean. Aurtengo santa eskeak, gainera, helburu garbi bat izango duela aurreratu dut bertako kideek: "Eli-zako organoa apurtuta dago eta berri bat erosi nahi dugu. Hori dela eta jendearen laguntza eskatuko dugu".

BIHAR Bestalde, Azpeitiko eta Azkoitiko ikastetxeak ere kantuan irtengo dira bihar kalera. Honela,

Azpeitiko Ikasberriko gurasoak eta ikasleak bi taldetan banaturik aterako dira 11.30ean. Gurasoen taldean, Joxe Agirre eta Angel Larrañaga bertsoariak arituko dira eta ikasleekin, aldiz, Izaro Zinkunegi eta Eneitz Arzallus bertsoariak gazteak izango dira. Amaitutakoan, 14.30 inguruan, kiroldegiko tabernan bilduko dira guztiek bertso bazkaria egiteko.

Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako ikasleek eta bertso eskolako koplariek herriko erakundeak, tabernak, zaharren egoitza, auzoak eta kaleak alaituko dituzte.

Floreaga ikastetxe gurasoak ere kantari arituko dira, bihar, 11.00etatik aurrera. Salestarrek lortzen duten diru guztia Hirugarren Munduko Gazteak erakundeari emango diola aurreratu dute. »K.F.